



Zaintzen duen herrira bidean





GORKA ARTOLA ALBERDI
BERGARAKO ALKATEA

AURKIBIDEA

- 2. UDALETXETIK
- 3. ONGI ETORRI BERGARARA
- 4. AURREKONTUAK
- 5. LEGEALDIAREN BALORAZIOA
- 6-7. ZAINZA PLANA
- 8. HERRIKO MUSIKARIEN DISKOA
- 9. 'BERGARAKO NAGUSIAK ERDIGUNEAN'
- 10. 'MADDIREN TRAJERIA' PASTORALA. 'BRETXA' MUSIKALA
- 11. MONZON-GANUZA SARIA. AROZTEGIKO PROGRAMAZIOA
- 12-13. ELKARRIZKETA: MIGUEL ETA AGUSTIN LAZPIUR
- 14. SAN MARTIN ESKOLAKO ETA ZABALOTEGIKO JOLAS PARKEAK
- 15. UR-JOLASAK LABEGARAIETAN
- 16-17-18. LABURRAK
- 19. KOLABORAZIOA. LABORATORIUM
- 20. KOLABORAZIOA. ARTXIBOA
- 21. KOLABORAZIOA: D2030
- 22-23. ALDERDIEN IRITZIAK. UDALBATZAKO KIDEEKIN HARREMANA EGITEKO BIDEAK
- 24. ELKARRIZKETA: KONTXI LASKURAIN, BERGARAKO ORFEOIA

2023ko martxoa

© Argitaratzailea: Bergarako Udala
Egilea: Mundu Mira Kooperatiba Elkarte

BIDE BERRIAK

Garai honetan, 2019-2023 legealdiaren amaierara heltzen ari garenean, ezinbesteko ariketa gertatu zait atzera begiratzea. Ideia, pentsamendu eta sentsazio asko sorrarazten dizkit horrek. Aitortu behar dizuet arantzaren bat badudala, baina oro har onak direla ditudan sentsazioak, konpromisoz eta arduraz lan egin izanak sortutakoak.

Aldizkari honetan jorratzen diren gai ei erreparatuta ideia bat aipatu nahi nuke bereziki, bide berriak zabaldu izanarena, alegia. Izan ere, bide berri fisikoak zein bestelakoak sortu eta zabaldu ditugu. Biziberritzen ari gara herriarentzat garrantzitsua izan den obra baten bitartez Zubieta eta Masterreka, urte luzez utzita egon direnak. Zabaldu dizkiegu bide berriak eskalatzailerei rokodromo berriarekin, berritu ditugu baserri bideak...

Hala ere, beste bide batzuk dira are poza handiagoa eragiten didatenak. Herritarrak oro har, baina politikak egiterakoan maiz periferian uzten direnak erdigunera ekartzeko balio izan digutenak. Jolaserako kontzeptu berriak dituzten parkeak sortzeko garaian haurrei hitza eman diegu, ulertuta gizartean subjektu aktiboak direla. Gauza bera egiten ari gara zaintzaren inguruan hausnartuz, bakardadearen inguruko azterketa eginez eta pertsona nagusien Kontseilua sortuz, eredu berriak sortuz. Eta hori egiteko moduetan bide berriak jorratzen eta etorkizunera bideak zabaltzen egin dugu. Aurrera begira ere baditugu ideiak eta proiektuak, guztiok Bergaran gustura bizi gaitezen.

NUEVAS VÍAS

En este momento que nos acercamos al final de la legislatura 2019-2023, me ha resultado un ejercicio imprescindible echar la vista atrás, lo que me ha generado ideas, pensamientos y sensaciones varias. Tengo que confesarles que a pesar de que se me ha quedado clavada alguna espinita, en general tengo buenas sensaciones, generadas por el trabajo realizado desde el compromiso y la responsabilidad.

Poniendo atención en los temas que se tratan en esta revista, me gustaría hacer especial hincapié en la idea de abrir nuevas vías. De hecho, hemos creado y ampliado nuevas vías tanto físicas como de otros tipos. Estamos revitalizando, haciendo una obra que ha sido importante para el municipio, las calles Zubieta y Masterreka, que han estado abandonadas durante años. Hemos abierto nuevos caminos a escaladoras y escaladores con el nuevo rocódromo, hemos renovado los caminos rurales, etc.

Sin embargo, son otras las vías que me generan más alegría. Esas que a la hora de hacer políticas nos han servido para traer al centro a la ciudadanía en general, pero en especial a esas personas que a menudo se dejan en la periferia. Hemos creado parques con nuevos conceptos de juego y en el proceso hemos cedido la palabra a las niñas y niños, entendiendo que son sujetos activos en la sociedad. Trabajamos también en ese sentido reflexionando sobre el cuidado, haciendo un análisis sobre la soledad y creando un Consejo de personas mayores, creando en todo momento nuevos modelos. Y todo eso lo hemos llevado a cabo explorando nuevos caminos y abriendo vías hacia el futuro. Tenemos más ideas y proyectos de cara al futuro para que todas las personas podamos vivir a gusto en Bergara.



Ongi etorri Bergarara

Begarara ongi etorria emateko helburuarekin, 2022. urtean herrira bizitzera etorri ziren pertsonen harrera egin zien Udalak 2023ko urtarrilaren 7an. Joan den urtean 370 pertsona berri etorri ziren Bergarara bizitzera eta horiek gonbidatu ziren ekitaldira. Arrazoi desberdinak bultzatuta etorri dira gurera jatorri askotariko pertsona horiek. Gehienak, Euskal Herriko beste leku batzuetatik eta Espainiatik etorritakoak dira. Asko dira Maroko, Pakistan, Colombia, Venezuela, Nicaragua, Ukraina, Honduras eta Boliviakoak ere.

Gorka Artola alkateak, dantzariak eskaini zieten aurrekuaren esanahia azalduta, omenaldia beraiantzat zela esan zien. Bergarak harrera herria izan nahi duela ere esan zien alkateak. “Inoiz ez da erraza gure etxea, herria edo maite ditugun pertsonak uztea, are gutxiago bidaia hori eragin duten arrazoien arabera. Euskal Herrian, eta beraz, baita Bergaran ere, gure historian zehar arrazoi politiko, ekonomiko edo bestelakoengatik migratzeko beharra ezagutu dugu. Gaur egun, ordea, gure egoera bestelakoa dela esan dezakegu, eta hala behar duten edo harrerako herri bat nahi duten pertsonentzat leku izan nahi dugu, eta izan behar dugu”, adierazi zien.

Begarara iristea erraztu nahi zaie pertsonen Artolak azaldu zenez, “bertara iristen zareten unetik zuen herrira ere iristen zaretelako” eta udaletxeko, denon etxeko, atek zabalik dituztela ere esan zien.

Ildo horretan, eta prozesua errazteko helburuarekin, Udala harrera gida bat prestatzen ari da, eta horren lehen zirriborroa aurkeztu zitzaion. Eta iritzia ere eskatu, haien esperientzietatik abiatuta, aurrerantzean herrira etorriko diren pertsonen lagungarri izango zaizkien gomendioak jasotzeko, prozedurak errazte eta hobetze aldera. Azken



hilabeteotan egin da lan hori eta epe laburrean argitaratuko da.

Begarari buruzko oinarrizko informazioa emateaz gain, beste kultura batzuk ezagutzeko ere parada izan zen. Aurrera begira fluxua aldebikoa izan dadin bitartekoak ere jarriko ditu Udalak, ezagutzak, kulturak... partekatuzko.

El Ayuntamiento de Bergara ha dado la bienvenida a las personas que han llegado a nuestro municipio en 2022 en un acto institucional realizado en el ayuntamiento. Así mismo, está elaborando una guía de acogida que se ha nutrido de las experiencias de estas personas, con el objetivo de facilitar su llegada a las personas que vengan en el futuro, que se publicará en breve.

Aitor Aranzabal: “Errealitatera egokitutako anbizio handiko aurrekontua da 2023koa”

30.565.086 euroko aurrekontu bateratua du Bergarako Udalak 2023. urterako. Ogasun zinegotzi Aitor Aranzabalek aurrekontua onartu zenean -2022ko abenduko osoko bilkuran- azaldu zuenez, “inbertsio kapazitatea mantentzea lortu da, nahiz eta gaur egungo egoera politikoak eta ekonomikoak eragin zuzena izango duten gastu arruntetan, adibidez elektrizitatean, gasean, erregaian.... daukagun errealitatera egokituta, anbizio handiko proiektua da”.

Atalka, aurrekontuetan igoera nabarmenak egin dira ongizateari lotutakoetan, zerbitzuetan eta hiri lanetan, auzoetan, ondarean eta kulturean, esaterako.

Gizarte Zerbitzuetara aurrekontu osoaren ia %9 bideratzen da, alegia, 2.700.000 euro bueltan. Etxebizitzaren IBla ordaintzen laguntzeko diru-laguntza programa sortzeko partida jasotzen da, besteak beste. Aranzabalen hitzetan, “pertsonek zaurgarriek ere izan ditzaten bizitzeko baldintza duinak”. Udal Gobernuaren asmoa da martxoko osoko bilkuraren ondoren -bertan onartu behar baita diru-laguntzen plan estrategikoaren aldagaketa- laguntza hau indarrean sartzea.

Berdintasun saila indartuta, aurrekontuan partida propioa izatea eragin du. Berdintasunean estrategikoa izango da 2023. urtean Emakumeen etxea sortzeko prozesu parte-hartzailea.

Aurrekontuan %3, 861.225€, auzoetan hobekuntzak egitera bideratuko da. Hor kokatzen dira, esaterako baserri bideak konpontzea, edota auzoetako frontoietako konektibitatea.

“Ehun ekonomiko indartsua behar du egoki garatuko den herriak, eta ildo horretan lehenetsia izango du azoka biziberritzeko proiektuak. Nabarmentzeko beste ezaugarri bat ere badauka honek, lehen sektorea indartzea”, Ogasun zinegotziaren esanetan.

Obretan, hirigintza lanetan eta zerbitzuetan ere igoera nabarmenak egin dira. Lan berriak egiteaz gain, adibidez, autobus geltokitik Eskusarterako bidegorria, aurretik datozenak bukatzeko ere aurreikusi da diru-partida, esaterako Masterrekako berrurbanizaziorako.

Bergara herri bizia da, eta kulturen aberatsa, eta horrela izaten jarraitzeko diru-poltsa ere handitu egingo da. 2023. urtean Arrizuriagari lotutako kultur proiektuarekin jarraitzea aurreikusten da.

Jasangarritasunaren bidean urratsak ematen jarraitzeko inbertsioak ere handituko dira, lurren erosketa publikoak egiteko, ingurumenarekin lotutako proiektuak gauzatzeko eta energia berriztagarriak ezartzeko (udal eraikinetan plakak, energia komunitatearen instalakuntzak, adibidez).

Aipatutakoez gain, Europako Next funtsetan tokia izan dezakeen proiektu baten lanketa egin da eta aurrekontuetan txertatu da. Udal-pilotalekua berritzea alegia, hau egokitzeko lanak egitea udal baliabideekin soilik nekez aurrera eramateko proiektua da, eta diru-laguntza jasotzen bada egingo da. Erantzuna martxoan bertan jasotzea aurreikusten da.



2023ko aurrekontuetan jasotzen diren inbertsioetako batzuk hauek dira:

JOLAS PARKEAK
50.000€

URBANIZAZIOAK - MASTERREKA...)
820.000€

BIDEGORRIAK ETA MUGIKORTASUNA
- (BUS GELTOKIA - ESKUSARTE)
450.000€

AUZOETAKO AZPIEGITURAK -
URBANIZAZIOAK
100.000€

BASERRI BIDEAK ETA KUNETAK
200.000€

BOLUKO MALDA
200.000€

INGURUMENKO PROIEKTUAK
149.000€

ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
(PLAKAK)
175.000€

KULTURA AZPIEGITURAK
(ARRIZURIAGA)
510.000€

AZOKA ELKARREKIN
230.000€

ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA
1.060.000€

GAZTELEKUA, LUDOTEKA
329.000€

El Ayuntamiento cuenta para 2023 con un presupuesto ambicioso adecuado a la situación actual. Por secciones, los presupuestos registran incrementos significativos en los ámbitos de bienestar, servicios y obras urbanas, barrios, patrimonio y cultura.





Legealdian egindako lana ondo baloratu du Udal Gobernuak

2019-2023 legealdiaren amaierara heltzeaz balantzea egin du Udal Gobernuak. “Legealdi berezia izan da, tartean mundu mailako osasun pandemia bat kudeatzea ere tokatu baitzaigu. Atzera begirata, ikusten dut bergararontzat beharrezkoak eta garrantzitsuak diren lanak egoki gauzatu ditugula; proiektu berri eta berritzaileak martxan jarri eta egin ditugula; eta bereziki puntu batean jarri nahiko nuke indarra: egiteko moduan, hasieran esan genuen eran eragileekin eta herritarrekin egin baitugu lan”, Gorka Artola Alberdi alkatearen hitzetan.

El Gobierno Municipal valora positivamente el trabajo realizado en la legislatura 2019-2023.

Atzera begiratzearekin bat etorkizunari begira utzitakoaren inguruan ere aritu da Alkatea. “Lan egiteko modu horrekin, elkarlan publiko komunitarioarekin, Bergara berri bat eraikitze bidean ere oinarri sendo bat jarri dugu. Elkarlanaz ari garela, pertsonen inguruan ere esan nahi dut nire ondoan izan dudak taldeak, gogotsu, ilusioz, eta ondo erantzun diela aurrean izan ditugun erronkei. Balorazioa ona da, hortaz”.

Epe ertain-luzera hasi zen lanean Udal Gobernuak, eta hori 'Bergara 2030 Egin herrixa' plan estrategiakoan jaso zuen. Horrekin batera, iparrorratz izan duen 'Bergara izan, bizi, ekin' legealdi plana osatu zuen. Batak bestea elkar osatu du. Azken plan horretan 91 proiektu zehatz jasotzen dira. Horietatik %80 eginda edo martxan daude -gutxi batzuk laster amaituko dira-.

Herria biziberritzeari lotuta, udalerrientzat garrantzitsuak ziren obrak egin dira. Zubieta eta Masterreka kaleak birgaitu edo Agorrosin futbol zelaia berritzea, esaterako. Neurriagatik ere inportanteak diren beste batzuk abiatuta daude, gainera ezaugarri berezia dutenak: partaidetza prozesuei lotuta daude, eta bertan sortuko diren proiektuak berritzaileak dira: Oxirondoko azoka biziberritzeko proiektua eta Arrizuriaga kultur proiekturako eta emakumeen gunerako berritzea.

Bide horretatik, eta elkarlan publiko-komunitarioari lotuta, aipagarria da 'Ehundu' eraldaketa sozialerako proiektua eta bulegoa martxan jarri izana. Horren bitartez kudeatzen ari dira dagoeneko hainbat proiektu, 'Berener' Energia Berriztagarrien kooperatiba edo Elikadura Mahaia.

Euskararen normalizazioan ekarpen berriak ere egin dira. Bat aipatzearen, 'Harixa' programa. Horren baitan 38 entitatek euskara lan munduan sustatzeko konpromisoa hartu dute. Kulturaren alorrean, Arrizuriagako proiektuaz gain, ekimen berriak proposatu dira, kulturarik gabeko herria, herri tristea baita, eta oinarrietako bat izan da Udal Gobernuarentzat Bergara herri bizia izatea.

Gaur egun, ingurumenaren arloari arreta jartzea ezinbestekoa da. Ildo horretan energia berriztagarriei lotuta energia plana sortzeaz gain, kontsumoak murrizteko neurriak hartu dira. Lursailen erosketak egin dira, ondoren bertako zuhaitzen landaketak egin daitezten. Ortu komunitarioak ere eraiki dira.

Ahalegin berezia egin da, halaber, periferiak erdigunera ekartzen, bai udalerriko espazioei begira eta baita pertsonen dagokienez ere.

Planean jasotako beste hainbat lan ere egin dira, lehen aipatutako osasun pandemiak eragindako egoera kudeatzeaz gain. Egoera jakin horretan, bereziki zaindu ziren zaugarriak diren kolektiboak eta ildo horretan sortu ziren hainbat laguntza lerro.



El Ayuntamiento ha comenzado a elaborar un plan de cuidados. Pretende afrontar la crisis que se vive en este ámbito planteando nuevos modelos.

Pertsonak erdigunean izango dituen zaintza ekosistema sortzeko lehen urratsak

Zaintzaren gaiaren inguruan gero eta gehiago hitz egiten da. Handik eta hemendik esaten da mendebaldeko herrialdeak zaintza krisi batean murgilduta gaudela. Azken urteotan biztanlerian aldaketa ugari egon dira: biztanleriaren zahartzea, mendekotasunaren igoera, familia eredu geroz eta anitzagoak egotea eta emakumeak lan merkatuan sartzea. Gainera, erantzuteko erabiltzen ari garen estrategia migrazio-fluxuetan eragiten ari da, eta zaintzen kate globala delako fenomenoak bultzatu du. Zaintza-eredua birpentsatzeko garaia da, hortaz.

Abiapuntu horretatik hasi da Bergarako Udala gai hori jorratzen. Farapi Koop. Elkartea kontratatu du plana osatzeko. 2022. urteko maiatzean abiatu zuen lanketa barne mailan Udalak, eta uztailean hasi zituen lan-saioak arlo horretan dabilzan eragile eta pertsonekin, eta modu batez edo bestez gaiak zuzenean eragiten dienekin. Egindako lanaren itzulketa saioa egin zen prozesuan parte hartu duten pertsonekin. Prozesu horren emaitza Zaintza Plan bat da eta martxoaren amaieran egingo den osoko bilkurara eramango da udalbatzak onarpena eman diezaion. Emakundek 11.630 euroko diru-laguntza eman dio Udalari ekintza-plana osatzeko.

Gaira gerturatzeko, komeni da hainbat gai zehaztea, erabiltzen diren kontzeptuak ulertzeko.

ZERTAZ ARI GARA ZAINZAZ ARI GARENEAN

Zaintzarena oso gai konplexua da, ertz askokoa eta ikuspegi askotatik begiratu beharrekoa. Pertsonen ongizaterako eta bizitzaren etengabeko birsorkuntzarako beharrezko askotariko jarduerak dira zaintzaren barruan kokatzen direnak. Pertsonen ongizatea bere osotasunean ulertzen du zaintzak: fisikoa, psikologikoa, emozionala eta soziala. Bizitza osoan zehar zaintzak guztiok behar ditugu: zaugarriak eta interdependenteak garela onartu behar dugu, eta autonomiaren mitoa hautsi.

GAUR EGUNGO ZAINZAREN EGOERA EUSKAL HERRIAN

Gure gizarteko zaintza erregimena familista da, familiak baitira gaur egun zaintzaren ardura unitateak. Familia guztiak egoera eta ahalmen berbera ez dutenez, familia unitate bakoitzaren baliabide ekonomikoek eta sare sozialek baldintzatzen dute zaintzarako eskubidearen egikaritzea. Bestetik, geroz eta merkantilistagoa da zaintza eredu, merkatuaren gain baitago zaintza lanak hornitzeko ardura.



Feminizatuta dago, eta bereziki klase baxukoak eta migratuak diren emakumeek egiten dituzte. Gaur egungo zaintza eredu, hortaz, prekarizatua eta prekarizatzailea da eta lan horiek ikusezinak dira eta ez dute merezi duten aitortza jasotzen.

Egoera horretatik abiatuta, Bergarako Udalak beste zaintza eredu bat landu nahi du, eta hori planifikatu, esan bezala. Horretarako landu den proposamenak zazpi helburu estrategiko ditu, eta bakoitzari lotuta jarduera multzo bat proposatzen da.

BERGARAKO ZAINZA PLANAREN 7 HELBURU ESTRATEGIKOAK:

- Zaintza bere dimentsio osoan ulertzea, lan hauek merezi duten aitortza egin eta ikusaraztea.
- Zaintzaren kultura eraldatu eta hauek modu justuagoan banatzea.
- Zaintza lanetan diharduten langile profesionalen lan- eta bizi-baldintzak hobetzea.
- Zaintza lanak familian egiten dituzten zaintzaileak zaindu eta baldintzak hobetzea.
- Zaintza modu duinean jasotzeko eskubidea sustatzea.
- Hirigintzaren ikuspegitik herri zaintzailea lantzea.
- Zaintza-krisiari ikuspegi komunitario batetik ere erantzuteko apustua egitea.



Ainhoa Lete Zabaleta - Alkateordea

Zaintzaren gaiari ere herri bezala erantzun

Pertsona guztiok behar dugu zaintza. Bai, hori barneratu behar dugun ideietako bat da. Guztioi eragiten digu zaintzaren gaiak, alderdi desberdinetatik begiratuta ere; bai zaindu gaitzaten behar dugulako, eta baita zaindu egin behar dugulako ere.


Baina, nola? Zaintza ereduaren krisia bizitzen ari garela gero eta ozenago entzuten ari gara. Guk geuk ere ikusten dugu, aldatzeko, hobetzeko asko dugula arlo honetan. Familiarengan jartzen da pisu handia gaur egun, eta horrek desorekak sortzen dizkigu pertsonen artean. Merkantilizatu ere egin da sektorea, eta baldintza kaxkarretan aritzen dira bertako langileak eta bereziki klase baxukoak eta migratuak diren emakumeak izaten dira.

Une honetan, herri bezala, gizarte bezala, dugun erronka bat da zaintzarena, eta herri erronka bat den heinean, erantzukizuna eremu pribatutik eremu komunitarioa atera behar dugu. Horregatik, babes egitura komunitarioak sendotu behar ditugu. Ari gara beste arlo batzuetan lankidetzak publiko-komunitarioak praktikan jartzen, Bergaran bertan, Ehunduren bitartez, esaterako. Eta uste dugu hortik jo behar dugula, eta zaintza ekosistema oso bat eratu.

Eta pertsona erdigunean jarrita, duda barik. Izan ere, gaur egungo ereduari, oso erraz bihurtzen da pertsona erabiltzailea menpeko, eta horrek ez luke horrela izan behar. Pertsona horiek, zaintza behar izanagatik ere, pertsona izaten jarraitzen dute, proiektuak dituzte, zaletasunak, beharrak...


Hasi gara Bergara zainduko duen herri bat izan dadin lehen urratsak egiten. Hainbat galdera izan ditugu mahai ganean zaintza plana sortzeko orain arte egindako prozesuan. Aurrera begira ere erantzuten joan beharko garenak. Zuek ere gonbidatuta zaudete, guztion artean egin behar dugulako.

**Ekaitz Aranberri:
“Mugimendu
handia dago
musikaren arloan
herrian eta
ekarpen bat egin
nahi diogu
sorkuntza horri
diskoaren
grabazioarekin”**



Bergarako musika taldeen abestiekin diskoa argitaratuko du Udalak. “Oro har aberatsa da Bergara kultur sorkuntzan, une honetan, musikaren alorrean ikusten ari ginen mugimendu handia dagoela herrian, eta ekarpen bat egin nahi genion sorkuntza horri Udaletik, lan berriak sortzeko bultzada izan daitekeelakoan”, Herritarren batzordeko lehendakari Ekaitz Aranberri Zezeagaren hitzetan.

Hala, Udalak herriko musika taldeen disko bat grabatzeko proposamena egin zien musikari eta musika taldeei 2022. urteko azaroaren erdialdean.



BERGARAKO 26 MUSIKA TALDE

26 musika talde edo bakarlarik agertu zuten interesa, eta abesti banarekin ari dira diskoan parte hartzen: Amustei, Arragoa, Asanblada autoritarioa, Azkaiter Pelox, Baykat, Bertso eskola, Blind09 & Steezy, Brigade Loco, DBQ, Diablues eta Bluezifer, Egino.j, Fango, Fly shit, Golden Blend, Harria, Hegazkin, Josu eta Maita, K-po, Kaleko Urdangak, Ktarsia, Lemak, Low Cost Deluxe, Maitane eta Julen, Orhi, Pino eta Ttipika. Guztira ia 100 musikari.



GRABAZIOA HERRIAN BERTAN

Grabazioak urtarrila eta apirila artean egiten ari dira musikariak Bergarako 'AURYN STUDIOS Rock & Metal Recording Studios' estudioan, eta ondoren nahasketa eta masterizazio lanak egingo dira. Diskoa formatu digitalean eta fisikoan ateratzea aurreikusten da.

Aranberrik azaldu duenez, “taldeek aurkezpen modura erabili ahal izango dute grabatutako kantua, eta bestetik, talde hasiberriek estudioa ezagutzea lagunduko du; zelan egiten den lan, esperientzia hartzea... eta etorkizunerako gordeta geldituko da garai honetako uztaren parte bat. Pozik gaude, jasotako erantzunarekin eta emaitza entzuteko gogoz”.

Banakako hitzarmenak egingo ditu Udalak taldeekin. Kantaren jabetza taldearena izango da, eta Udala baimenduko dute CDak atera eta saltzeko, zein kanta plataforma digitaletara igotzeko. CDaren 500 ale argitaratuko ditu Udalak. 11.000 euroko aurrekontua du proiektuak.

Con el objetivo de impulsar la creación musical actual y para que quede constancia de ella en el futuro, el Ayuntamiento va a publicar un disco con canciones de 26 grupos y solistas del municipio.



El alumnado de la ikastola Mariaren Lagundia está realizando un diagnóstico sobre la soledad entre las personas mayores de 65 años que viven solas

Mariaren Lagundia ikastola y el Ayuntamiento colaboran en el proyecto 'Bergarako adinekoak erdigunean' con el objetivo de abordar el tema de la soledad entre las personas mayores. El Ayuntamiento pretende trabajar el ámbito social con el alumnado de los ciclos formativos de Mariaren Lagundia ikastola a través del Aprendizaje por Servicio.

En el día internacional intergeneracional de 2022 quedó claro que el tema de la soledad conecta a adolescentes y jóvenes con las personas mayores. “Ambas partes analizamos qué temas podíamos abordar en el marco de la cooperación y decidimos abordar el tema de la soledad. Se trata de un tema que genera cada vez más preocupación y nos pareció interesante conocer la situación real que tenemos en el municipio”, en palabras de la concejala de Bienestar Social, Zihortza Marzan. En diciembre de 2022 ambas partes firmaron un convenio para la ejecución del proyecto.

Han comenzado el trabajo de diagnóstico con las personas que viven solas. Maite Usabiaga, la profesora encargada de coordinar el proyecto, explica que “sentirse sola y vivir sola no tiene por qué estar ligado, pero se prevé que un gran número de personas que se sienten solas viven solas”. En ese sentido, las dos partes ven que hay una necesidad de normalizar el tema de la soledad e informar de una realidad: la soledad elegida y la no deseada.

El diagnóstico consta de diferentes fases. En este momento están realizando entrevistas y sesiones participativas con personas mayores para conocer su realidad y opiniones.

Como explica Marzan, “porque es imprescindible dar voz a las personas mayores, que sean sujetos activos en este tema que les toca de pleno”. Una vez finalicen la fase de escucha, trabajarán en las conclusiones y finalmente se informará a la ciudadanía de los resultados.

Hasta el momento, en opinión de las personas que están llevando a cabo el trabajo, está siendo un reto bonito, interesante y enriquecedor. En palabras de Nahia Granados, una de las alumnas que participa en el proyecto, “es enriquecedor poder poner en práctica la teoría que estudiamos en la ikastola. Nos permite empezar a conocer el mundo laboral. Además relacionarse con personas mayores es muy enriquecedor porque nos permite aprender sobre la vida, más allá de lo profesional”.

Usabiaga explica que “la apertura a la comunidad es un reto que tiene el sistema educativo en general y la ikastola en particular, y esta colaboración nos parece una gran oportunidad para ello; para conocer mejor el municipio y poder ofrecer algo”.

Una vez realizado el diagnóstico se propondrán proyectos para poder seguir trabajando en el tema.

Mariaren Lagundia ikastolako ikasle talde bat, Udalarekin elkarlanean, 'Bergarako adinekoak erdigunean' proiektuaren bitartez 65 urtetik gorako pertsonen bakardadea ezagutzeko diagnostikoa egiten ari da.



'Maddiren trajeria' pastorala Bergarara ekarriko dute Xareta eskualdeko herritarrek martxoaren 25ean

“Maddiren trajeria pastorala Bergarara ekartzeko proposamena jaso genuenean ez genuen zalantzarik egin, jasotako proposamenagatik eskertuta, eta bergararrei aukera hau eman ahal izateagatik pozik gaude”, esan zuen Gorka Artola alkateak pastorala aurkezteko egindako agerraldian.

Martxoaren 25ean, 17:00etan, udal pilotalekuan taularatuko dute Xareta eskualdeko (Ainhoa, Sara, Urdazubi eta Zugarramurdi) herritarrek Maddiren trajeria pastorala, joan den udazkenean Zugarramurdin eta Saran eskaini ondoren. Egun horretan bertan, 12:00etan, desfilea egingo dute herritik

Un grupo de habitantes del valle de Xareta representa en Bergara la historia de Maddi, la chica que se convirtió en ciervo, en formato de Pastoral, el 25 de marzo, en el Frontón Municipal.

barrena pastoraleko kideek, Udal Pilotalekutik abiatuta Munibe plazara arte.

Bergaran kultura sorkuntza handia eta askotarikoa da. Horrekin bat, Euskal Herrian sortzen denak Bergaran lekua izan dezan nahi du Udalak. “Halakoez, gainera, herrien eta herritarren arteko harremanak sortzeko eta sendotzeko ezinbesteko aukera dira”, Artolaren esanetan.

Maddi, oreina bilakatu zen neskaren istorioa kontatzen du pastoral honek, eta Piarres Lafittek 1965. urtean aurkitu zituen bertso-zahar batzuetan dago oinarrituta. Era berean, Xareta eskualdeko istorioak ere gehitu dizkiote: kontrabandoa, guardia zibilak, sorgin-ehiza, inkisidoreak, epaileak...

SARRERAK

Sarrerak salgai daude 15 euroan seminarixoa.eus atarian, Seminarixoko txarteldegian asteazkenetan 18:00etatik 20:00etara, eta aurretik denak saltzen ez badira, egunean bertan egongo dira 16:00etatik aurrera pilotalekuan. Bestetik, pastorala hobe jarraitzeko liburuxkak egunean bertan saltzeaz gain, aurrez Seminarixoko txarteldegian daude eskuragarri 5 euroan.

Arrakasta handiarekin eskaini du BAMEk 'Bretxa' musikala

Donostian estreinatu ondoren Bergaran erakutsi du BAM Bergara Antzerki Musikala Elkartek eta Musika Eskolak 'Bretxa' musikala. Toti Martínez de Lezearen izen bereko eleberrian oinarrituta dago. Musikalak taularatu dituzte aurretik BAMEkoek, baina hau inoizko handiena izan da, parte hartu duen jende kopuruagatik, eta emanaldiengatik.

Oihan Vegak eta Valen Moñuxek zuzendu dute. Eskertuta agertu dira izan duten harreragatik. Bergarako Udalak ere eskerrak eman nahi dizkie eta egindako ekarpenagatik

zoriondu. Kristina Markina Kultura zinegotziaren hitzetan, “herriari begira kultura eskaintza aberasteaz gain, ekimen parte-hartzailea da, eta bizia ematen dio herriari. Kulturaren alorrean egiten duen ekarpenaz gain, nabarmentzekoa da euskaraz sortu izanak hizkuntzaren normalizazioari egiten dion ekarpena ere”. Bergararen izena lau haizetara zabaltzeko ere ekarpen interesgarria da Markinaren ustez.

Bergara Antzerki Musikala Elkartea representa el musical 'Bretxa', basado en la novela homónima de Toti Martínez de Lezea con gran éxito.

EUSKAL UTOPIKOEI SARIA

MONZON/GANUZA SARIA

Xabier Amuriza Zarraonaindia (Etxano, 1941)

BERGARAKO
UDAL ALDIZKARIA



Xabier Amuriza recibe el premio Monzon-Ganuja Euskal utopikoei saria por toda una vida dedicada a Euskal Herria, su cultura, su lengua, etc.

Xabier Amurizak jaso du III. Monzon-Ganuja Euskal utopikoei saria

Olaso Dorrea Fundazioak eta Bergarako Udalak ematen duten Monzon-Ganuja Euskal utopikoei saria Xabier Amurizak jaso du aurten, martxoaren 16an Seminarixoan egin den ekitaldian. Euskal Herriari, bere kulturari, hizkuntzari, historiari eta etorkizunari bizitza osoko lana eskaini dioten bergarar zein Bergaraz gairako herritarrak omentzea du helburu sariak. 2021. urteko martxoaren 9an bete ziren 40 urte Telesforo Monzon hil zela, eta urteurren horren testuinguruan sortu zen ekimena.

1980ko hamarkadan berritasun handia ekarri zion bertsoari, eta seguru aski ezinezkoa da egungo Bertsoari modernoa ulertzea bere ekarpena kontuan izan gabe. Halaber, nabarmenezkoa da bertso eskoletan eragindako iraultza. Helduentzako bertso eskoletako lehen

ikasmateriala apailatu zuen. "Bertsotan aritzeko jaio egin behar da" ustea ere eraitsi zuen. Bertsoari dagokionez, euskara batua ekarri zuen Txapelketa Nagusira.

Bere kultur jarioa amai ezina da. Hainbat eleberrri, narrazio, olerki liburu eta saiakera idatzi ditu eta bereak dira euskal kantugintzako hainbat abesti eta koplak ezagun, hala nola, 'Euskal Herrian Euskaraz', 'Mendian gora haritza' edo 'Furra furra'.

Euskal kulturari egindako ekarpenaz gain, nabarmena da urte latzetan herri honekiko azaldutako konpromisoa. Gogor apaizen mugimenduaren bultzatzaile izan zen frankismoan eta Derioko eta Bilboko apezpiku etxean egindako entzierroetan egon zen. Horren ondorioz zazpi urte egin zituen preso Zamoran eta Basaurin, hiru espetxealditan. 1976an utzi zuen apaizgoa.

Politika arloan ere urte luzez azaldu zuen herriarekiko konpromisoa eta Zornotzako Udalean zinegotzi, Bizkaiko Batzar Orokorretako batzarkide eta Gasteizko legebiltzarreko legebiltzarkide izan zen Herri Batasunaren izenean, 80ko hamarkadan.

Belaunaldien arteko zubi lana ere eraiki nahi da sari honekin eta euskal artista berriak sustatzea ere bultzatzen da. Artelan bat jaso ohi du saridunak. Amurizak Iker Serranoren 'Haitz_errua' artelana jaso du.

Askotariko erakusketak jasoko ditu Aroztegi aretoak 2023an

Begarako Aroztegi aretoan 2023an erakusketa egiteko eskaerak aztertu ondoren Aroztegi aretoko batzorde mistoak eratu du 2023ko erakusketen egutegia. Eskaera asko jaso ditu batzordeak, eta horietako 11 kanpoan utzi behar izan ditu. Kanpoan gelditu direnen artean 4 Bergarako kolektibo edo elkarteek egindako erakusketak dira, eta horiei erakusketa egiteko aukera emango zaie Agorrosingo barneko patioan.

Batzorde mistoak egoki ikusi du gonbidaturen bat ekartzea, eta hala, erakusketa gonbidatua Euskal Herrian egindako motorren eta ziklomotorren bilduma izango da. Maiatzaren 5etik 21era bitarte egongo da Aroztegin. 2022. urtean erreserban gelditu ziren ACF Dark Red Team erakusketa otsailean egon da ikusgai, eta Koro Zumalabereren erakusketa irailaren 29tik urriaren 15era erakutsiko da.

Urtearen amaieran, ohikoa denez, herriko hainbat taldek erakutsiko dituzte haien lanak.

La sala Aroztegi acoge varias exposiciones este año, entre ellas, una colección de motos y ciclomotores construidos en Euskal Herria.



Miguel Lazpiur: “Gazteek egindako lanak emaitzak ematen dituela ikustea garrantzitsua da”

Maiatzaren 5etik 21era arte Euskal Herriko motorren erakusketa izango da Bergarako Aroztegi aretoan. Miguel eta Agustin Lazpiur bergarrek antolatutako erakusketa hau 2023 urteko gonbidatua izango da. Lazpiur enpresara gerturatu, eta bi anaiekin erakusketaz, haien ibilbideaz eta herriari buruz aritu gara.

Bisitariak zer ikusiko du?

Agustin: Euskal Herrian 1950 urteen bueltan egindako 20 motor inguru erakutsiko ditugu erakusketan. Garai hartan mordoska bat egin zen. Gure helburua da jendeak ikus dezan Euskal Herrian zein lan egin den eta zenbat enpresa egon diren motorgintzara dedikatu direnak. Asko izan dira. Euskal Herrikoetz gain, niretzako garrantzitsuak diren beste hainbat motor ere ikusgai izango dira. Esaterako, inon ezagutzen ez den eta oso polita den Belgikako motor bat.

100 urte baino gehiago ditu enpresak, eta bere historian arlo desberdinetan aritu da.

Miguel: Gure aurreko belaunaldiek eta guk geuk eman ditugun aldaketak bizirik irauteko izan dira bereziki, eta batzuetan, baita nahi izan dugulako ere. Lazpiurren lehen industria-jarduera 1914an izan zen, larruzko zapatak hornitzen eta fabrikatzen, gure aitaren eskutik. Hasierako garaian urte onak izan zituen. Lehenengo Mundu Gerran Espainia neutrala zenez, han eta hemen zapatak

Argazkia: The Badass
Project.

saltzeko aukera izan zuen. Gerora, Euskal Herrira gerra iritsi zenean, arazoak izan zituen ideologia nazionalista zuelako. Ez zen politikan sartu, baina nahikoa izan zen miaketan helburu izateko. Garai zailak izan ziren. Guk gure aita tailer batean puntapaxak egiten ikusi genuen. Negozio hark balio erantsi txikia zuen.

Urte haietan bukatu nuen nik lanbide-eskola, eta tailer mekaniko batean hasi nintzen lanean. Ondoren, aita eta Agustin gehitu ziren, azken honek ikasketak bukatu zituenean. Hasieran, inguruko lantokietarako piezak egiten genituen. Beranduago, etxetresna enpresentzat hasi ginen lanean. Gerora, automozioa indarra hartzen joan zen, eta harentzako ere egin genuen lan.

“Euskal Herrian sortutako motorrak ikusiko dira erakusketan”

ZTB jardunaldietan Lazpiur enpresako CEOak auto elektrikoaren inguruan hitz egin zuen.

Miguel: Gaur egungo beharretara egokitzea ezinbestekoa da. Sektorean kotxe elektrikoa garrantzia hartzen ari da, baina lehendik dagoena alde batera utzi gabe. Kotxeek geroz eta pieza elektroniko gehiago dituzte, eta hor lan asko egiten dugu, eta egiten ari gara.

Ekintzaileak izan zaretela ikusten da. 2022ko EKINola jardunaldietan omendu zintuzten, Miguel.

Miguel: Egindakoa aitortzea oso ondo dago, gazteek ere ikus dezaten egindako lanak emaitza ematen duela. Atzetik datozen gazteentzat besteok egin duguna ikustea garrantzitsua da.

La sala Aroztegi acogerá en mayo una exposición sobre motos hechas en Euskal Herria impulsada por Agustín y Miguel Lazpiur.

Ekintzailetasun hori enpresa munduan bakarrik ez, elkartegintzan ere izan duzue. Gerraostean, esate baterako.

Miguel: Gurasoak nazionalistak ziren, eta beraiek transmititu dizkigute baloreak eta pentsatzeko erak. Gerra garaian galtzaile atera ziren, eta ondorioz asko sufritzea tokatu zitzairen. Hala ere, nazionalistak eta abertzale izaten jarraitu genuen. Etxean euskaraz egiten genuen, eta gerora ere hala segitu dugu, etxean eta auzoan euskaraz egiten genuen. Aukera izan dugunean bultzada eman diogu euskarari eta kulturari: gerra ostean, lehenengo dantza eta euskarazko antzerki taldeak sortu genituen; dantza taldeak martxan jarraitzen du oraindik.

Bergarako 38 entitatek, Udalak bultzatuta, lan munduan euskara sustatzeko konpromisoa hartuz hitzarmena sinatu zenuten iaz. Nola txertatzen duzue euskara zuen enpresan?

Miguel: Orain arte, Lazpiurren ez da euskara indartu behar izan, denek zekitelako. Hala ere, euskara planak egin izan dira, eta egun ere garrantzia ematen zaio. Agustín: Guretzako inportantea da hona datorrenak ere euskaraz jakitea. Gaur egun kasik denek dakite euskaraz bai bulegotan eta, baita, tailerrean ere.

Nola ikusten duzue Bergara gaur egun?

Miguel: Lehenik, baloreak aldatzen ari direla iruditzen zait. Bigarrenik, Euskal Autonomia Erkidegoan gaiak zentralizatzen ari direla uste dut. Non egiten dira inbertsioak? Donostia inguruan ari dira pilatzen; beste bailarak ahaztuta daude, eta horien artean dago gurea. Agustín: Bergarak bertakoa gehiago indartu behar du. Kanpora Bergara herria erakutsi egin behar da. Ingurukoek ez gaituzte ezagutzen.



Bergara va a contar con nuevos parques de juegos inclusivos, diseñados en colaboración. Se acaba de abrir el de San Martín Herri Eskola y pronto comenzarán las obras en el de Zabalotegi.

Elkarlanean pentsatutako jolaserako eremu berriak izango dituzte Bergarako haurrek

Zabaldu berri da San Martín Agirre Herri Eskolako Haur Hezkuntzako jolaserako eremu eraberritua. Horrela, Herritarren batzordeko lehendakari Ekaitz Aranberri esan duenez, “Bergarak jolaserako beste espazio bat irabazi du. Izan ere, eskola orduetatik kanpo gainontzeko herritarrek ere erabili ahal izango baitute, Lehen Hezkuntzako bezala”.

Eskolako Haur eta Lehen Hezkuntzako patioetan zegoen hutsunea aspaldi identifikatuta zuen eskolako komunitateak. 2021. urteko irailean Lehen Hezkuntzako patioan jolas librerako eremua inauguratu zenean gurasoek nabarmendu zuten, “kirola zen eskaintza nagusia bietan eta ikasle asko geratzen ziren dinamika horretatik kanpo. Argi genuen ikasle guzti-guztiei jolaserako askotariko aukerak eskaintzen zizkien kanpo espazio inklusibo bat behar genuela. Horrela abiarazi genuen patioak eraldatzeko prozesua”.

“Gune berriarekin, orain arteko inertiarekin apurtu, eta baloi-zentrismoa sustatzen zuen patioa, esploraziorako eta jolas librerako espazio inklusibo bihurtuko da, eskolako komunitateak eskatu bezala”, Aranberriren hitzetan. Gainera, kontuan izan behar da gaur egun eraikina eskola orduetan 6 urtetik beherako haurrek erabiltzen dutela, beraz, patioa haien premietara egokituta dago.

Eskolako gurasoek zein zuzendaritzak lan izugarria egin dute patioarako irizpideak bateratzen eta Udalarekin batera lanketa egiten, eta horregatik eskerrak eman dizkie Aranberri, “eskolarako ez ezik herrirako ekarpen polita egin dutelako”. Lankidetzara maila ekonomikoan ere gauzatu da. Orotara 122.428,77 euroko inbertsioa egingo da. Udalak kopuru osoaren %75 pasatxo hartuko du bere gain eta gurasoek gainontzeko ia %25a.

ZABALOTEGIN ERE BAI

Zabalotegiko Txiki Txokoaren aurreko jolaserako gunea ere berrituko da. Oinherri herri hezitzaileen sareko kide da Bergara, eta horren filosofiari jarraituta egin da gunearen diseinuaren prozesua. Parte-hartze saioak egin dira haurrekin eta familiarekin.

Gorka Artola alkatea pozik dago egindako lanarekin. “Azken urteotan proiektu asko egiten ari gara partaidetzan, eragileekin eta herritarrekin. Haurrak ere herritarrek dira, beraz, helduekin egiten dugun bezala hasi behar gara haiek entzuten”.

Jasotako ideiekin jolas gunea diseinatzeko proposamen bat osatu zen eta horretan oinarritu da proiektua. Esleitzear dira lanak. Horiek hasita 4 hilabetetan egitea aurreikusten da, eta aurrekontua 91.562,23€ (BEZ barne) da.

Eremuak 700 m² ditu. Jolas jarraiturako gunea izango da, egur naturalarekin egindako elementuak izango dituena. Haurrek material naturalak ukitu, sentitu eta elkarri eragiteko aukera izango dute, eta hortaz, jolasaren bidez horietaz gozatzeko.

Ekipamendu berriak kioskoko hexagonoaren bi aldeetan kokatutako dorre-modulu bat izango du. Bertan, igoera-sare bat, txirrista, tunela, eskalada-pareta... egongo dira. Era berean, enbor eta sokazko baso bat izango du; hiru aurpegiko rokodromo bertikal bat; txikientzako bentatxo bat eta jolas sinbolikoetarako mahai bat; gurpil-aulkientzako arrapala irisgarri bat eta alboetako itxiturak, jolaserako irekiguneekin eta beste hainbat elementu. Espazio osoan segurtasun-zoru bat jarriko da.

Horrez gain, bankuak, paperontziak eta alboko horman babes-baranda bat jarriko dira, bai eta iturri bat ere. Argiztapen-sistema ere berritu egingo da.





Nuevo parque de juegos de agua en Labegaraieta

Bergara contará con un segundo parque de juegos de agua que se construirá en los terrenos adyacentes al polideportivo de Labegaraieta. Se suma al del solarium de Agorrosin. Será el primero de entrada libre.

El Gobierno Municipal lo tenía previsto en el plan *Bergara izan, bizi, ekin*, y el proyecto viene a atender la petición de la ciudadanía. Se han analizado diferentes emplazamientos y el de Labegaraieta es el mejor valorado y factible en este momento. En la reflexión sobre la reordenación de la zona también fue solicitado por las personas residentes en el barrio.

El proyecto técnico está redactado por 'Imara Ingeniaritza, SL' y el plazo de la licitación está abierto hasta el 3 de abril. El presupuesto es de 290.192,78 euros (IVA incluido).

Este nuevo equipamiento de esparcimiento ocupará una superficie de 271 m² en la actual zona de césped y hormigón junto al módulo ampliado de Labegaraieta. La superficie impregnada con grifos de agua tendrá 160 m², dejando un perímetro exterior de 1,5 metros de anchura reservado a la zona seca. Así, cuando el viento desvíe el efecto del agua, no se salpicará en los puntos exteriores del parque.



ADECUADO A DIFERENTES EDADES

Se ha diseñado con juegos accesibles y específicos para cada tramo de edad. Para las y los más pequeños se prevé un espacio con texturas de agua suaves y atracciones de fácil utilización. Un segundo campo, el dirigido a las familias, está pensado para el juego espontáneo y la manipulación, y el dirigido a más mayores contará con aparatos de mayor caudal y presión.

En total, se propone dotar a este parque de 25 elementos lúdicos: aspersores a ras de suelo, efectos de agua con pulverizaciones individuales, dos cortinas que giran, chorros que chocan entre sí y generan una refrescante nube de lluvia, y un sistema de activación de la secuencia de agua para regular el consumo y reducir el gasto innecesario.



TRATAMIENTO DEL AGUA

Se han barajado tres alternativas para gestionar el agua que se va a utilizar. Por un lado, la implantación de un sistema de reutilización del agua en el propio parque recreativo, por otro lado, la reutilización para otras actividades y, finalmente, la pérdida de caudal. En principio se utilizará la última, ya que permitirá la puesta en marcha del parque antes, no necesita obras de infraestructura y además de reducir el consumo de electricidad, se evita totalmente el uso de químicos, entre otras cosas. Por el contrario, el agua no se reutiliza. De cara al futuro, sin embargo, se realizará una instalación que permita el uso del agua para otras actividades, como la limpieza de calles o el riego.

Labegaraieta kiroldegi ondoko lurretan egingo da ur-jolasen parkea. Adin desberdinetako erabiltzaileentzat egokitutako jolasak edukiko ditu.



Hainbat ekimen gorpuztuta Ehundu eraldaketa sozialerako proiektuaren balorazioa egin dute bultzatzaileek

Ehundu herritar talde baten kezkatatik abiatu zen, herritarren beharrak

entzun eta hauei erantzun kolektibo bat emateko espazio baten beharra ikusi zelako. Lekukoa hartuta Olatukoop, D2030, HUHEZI-Lanki eta Bergarako Udala lanean hasi ziren. 2021. urtean sinatu zuten eragileek lehen hitzarmena. 2023ko otsailaren hasieran hitzarmen hori berritzeko testuingurua baliatu dute orain artekoaren balantzea egin eta aurrera begira jartzeko.

Eraldaketa sozialerako proiektuan eta bulegoaren bitartez, hainbat ekimen gorpuztu dira dagoeneko. Energia burujabetzaren bidean Berener kooperatiba sortu da; Elikadura Mahaitik burujabetza bide-orri sentsibilizazioan, azokako proiektuan eta nekazaritza proiektuan lanean ari dira; teknologian burujabe izateko internet eta telefonoa etxeetara eramateko filosofia horrekin lanean ari da Zibergara taldea; hezkuntzan Herri Hezitzailearen barruan herrira etorri berri diren familiei enbaxadore lanak egiteko sare bat dago; eta kulturatik agenda bateratua sortu da. Ehunduren bulegoan, halaber, SOS Arrazakeriarekin migratzaileendako aholkularitza eskaintzen da eta energia gaietan aholkularitza Berenerren bidez. [1]



Masterreka kaleko lanak aurreikusi bezala gauzatzen ari dira

Zubieta eta Masterreka kaleen birgaitzea legealdi honetako obra handienetakoa da. Hiru fasetan egiten ari dira lanak. Zubieta kaleko lanak amaituta, 2023. urte hasieran hasi ziren Masterreka eta Bideberriko bidegurutzeko urbanizazio lanak. Aurreikuspena da ekainerako amaituta egotea. Zubietako bizilagunak gustura agertu dira orain artekoarekin, bideak berritzeaz gain auzoa bera biziberritu delako. Udal Gobernuak, aurretik bizilagunekin adostu bezala, eta lanak amaitzeaz daudela ikusita, Zubietan dauden erabilera publikoko azpiegituren inguruan hitz egiten hasiko da bizilagunekin horien inguruko erabilera zehazten joateko. [2]

Euskara lan munduan sustatzeko 'Harixa' programan enpresen diagnostikoa egin da


2022ko urrian Bergarako 38 entitatek euskara sustatzeko konpromisoa hartuz hitzarmena sinatu zuten 'Harixa' programaren barruan. Ordutik lanean jardun dute. Diagnostiko bat egiteko helburuarekin enpresetara bisitak egin dira, otsailean amaitu direnak. Enpresa



bakoitzari balorazio-txosten bat emango zaio eta bertan diagnosi labur batez gain, bere egoera kontuan hartuta, bidera ditzakeen ekintzen proposamen bat ere emango zaio. [3]

Labegaraietako rokodromoa berritu da

2021. urte amaieran zabaldu zen Labegaraietako kiroldegiko rokodromo berritua. Ondoren hobekuntza lan batzuk egin dira. Bigarren berrikuntza egin da orain dela gutxi, hiru jarduketa eginez. Batetik, eskalatzeko hastapenerako eremua egokitu da. Bestetik, 'MoonBoard' instalatu da, eta aurretik zeuden bide guztiak berritu dira. [4]



Begarako Kirol Zerbitzuko 'Ohorezko abonatu txartela' banatu da

Begarako Udalak Kirol Zerbitzuko "Ohorezko abonatu txartela" martxan jarri du hainbat herritarrek kirolaren alde egiten duten edo egin izan duten lana eskertzeko, edota kirol arloan lortutako emaitzak saritzeko. Urtebeteko abonua da. Lehen deialdiko sarituak ondorengoak izan dira: Pili Arin Milikua, Aitor Eraña Fernandez de Arroyabe, Maddi Barrocal Santos, Maria



Sanchez Casado, Euken Azpeitia Iturbe eta Josean Iñarra Calderon. Herritarrek proposatu eta bozkatu dituzte, eta boto emaileen artean, Asier Muñoz Poza izan da 3 hilabeterako doako abonuen irabazlea. [5]

Egun osoko egitaraua Erramu Zapatuan

Apirilaren 1ean egingo da aurten Erramu Zapatua. Goizean, ohi denez, feria egingo da, 09:00etatik aurrera, Ibargarai kalean, Simon Arrieta plazan, Seminarioko karpan eta San Martin plazan egongo dira postuak. Musika Eskolako musikariekin kalejira, tailerrak, joaldunak, herri bazkaria Txapa Irratiak eta Xaxauk antolatuta... eguna amaitzeko, dantzaldi-erromeria Eingo taldearekin eta gauean Xiberoots taldearen emanaldia Munibe plazan. [6]



Apirilaren 20ra arteko epean aurkez daitezke 2023ko Koldo Eleizalde lehiaketetan parte hartzeko lanak

Koldo Eleizalde lehiaketan 38. edizioan parte hartzeko deialdia zabaldu da. Bergaran jaiotakoek edo bertan bizi direnek zein ikasi edo lan egiten dutenek har dezakete parte. Lanak aurkezteko epea apirilaren 20ra artekoa izango da. Lau genero edo genero-multzotako lanak aurkez litezke: ipuin idatzia eta poesia, komikia, bertsoa, eta kontakizuna eta interpretazioa. Azkeneko horren barruan daude honako hauek: antzerkia, podcasta, ipuin-kontaketa eta txiste edo umorezko pasadizoen kontaketa. Sari-emate ekitaldia Seminarixoa egingo da ekainaren 3an, 12:00etan. [7]

Basalgoko frontoiko estalpea berritu da

Auzotarrek egindako eskaerari erantzunda, orain jolaserako leku aproposagoa dute Basalgoko auzotarrek eta bertara joaten direnek frontoiko estalpea berritu ondoren. [8]




Lokatza Taldeak zikloturismo proba antolatu du Pello Garitanoren omenez

Iaz zendu zen Pello Garitano omentzeko Lokatza Ziklismo Eskolak martxoaren 25erako Gorla I. Igoera Zikloturista antolatu du. San Martin plazatik abiatuko da. Garitanok arlo horretan zein herrirako egindako lan andana oroitu eta eskertu nahi da. Beti jantzita eramaten zuen txapela gogoraraziz 'Hartu txapela' lelopean herriko hainbat pertsonak bideo batean ere parte hartu dute, eskuz esku txapela elkarri ematen. Txirrindularitzan bakarrik ez, danborradan, elikagaien bankuan... nekaezin aritu zen lanean. [9]

Buruñaoko bidegurutzeko lanak hasi dira

Buruñaoko bidegurutzeko obrak hasi dira. Industria gunea, bidegorria eta auzoko bidegurutzea berrantolatuko dira. Lanaren helburu nagusia da erabiltzaileen segurtasuna bermatzea. 57.479 eurotan 'Provisa vías y obras S.L.U.' enpresari esleitu zaizkio lanak. [10]



Boluko ezponda egonkortzeko lanak

Bigarren fasea amaitu da Boluko malda egonkortzeko lanetan. Ezpondaren egonkortzerako lanen fase honetan gainazaleko lur irristatzeetarako hesi malgua jarri da, bidegorri-pasabidearen kanpoko ertzean hesi estatiko bat, irristatzeen aurkako segurtasun-hesi erredundantea izango dena eta bidegorriko plataformaren drainatze-sistema hobetu. Horiek eginda, itxita egon zen bidegorria Gabonen aurretik zabaldu zen. Ordurako nahikoa euri egin ez zuenez, ondoren jarraitu da euri urak bideratzeko azterketa, datu bilketa egiten ari dira. [11]



[1] Las entidades colaboradoras del proyecto de transformación social Ehundu valoran positivamente su trayectoria hasta el momento. [2] Las obras de reurbanización de la calle Masterreka transcurren según lo previsto. [3] Se ha realizado el diagnóstico de las empresas que participan en el programa 'Harixa'. [4] Se ha renovado el rocódromo de Labegaraieta. [5] Reconocimiento al trabajo realizado en el ámbito del deporte a través del carné de 'Abonada-Abonado de Honor' [6] El Sábado de Ramos viene con un programa lleno de actividades para el 1 de abril. [7] El 20 de abril finaliza el plazo para presentar trabajos en el concurso Koldo Eleizalde. [8] Atendiendo a la demanda de la ciudadanía de Basalgo se ha arreglado la cubierta del frontón. [9] Homenaje a Pello Garitano con una prueba cicloturista. [10] Han comenzado los trabajos del cruce de Buruñao. [11] Terminada la segunda fase de las obras de estabilización de la ladera de Bolua.



Udalbiltzaren Geuretik sortuak kultur ekimenaren bitartez Kote Camacho komikigileak egonaldia egingo du Bergaran

Geuretik Sortuak kultur ekimenak bigarren edizioa du aurten, eta bertan parte hartuko duten sortzaile eta udalerrien zerrenda eman du aditzera

Udalbiltzak. Bergarak aurten ere parte hartuko du ekimenean. Iazko urrian beka deialdia zabaldu zen uanean iragarri bezala, aurten Udalbiltzak.

laugarren arte alor bat gehitzea erabaki du: literatura, zinegintza eta antzerkigintzako sortzaileez gain, komikigileak ere protagonista izango dira oraingoan. Beka deialdian 60 proposamen jaso ziren orotara lau arte alorretatik. Oraingoan Kote Camacho Oiarzungo komikigilea egongo da gurean, eta Txillardegiri buruzko komikia onduko du.

Lehen edizioa bezala, bigarren hau ere bi urtez luzatuko da. 2023an zehar sormen egonaldiak egingo dira 22 multzotan bildutako 39 udalerritan. Ziklo berri honen bigarren urtean, 2024an, sortutako lan guztiekin kultur zirkuitu bat osatuko da. Ipuinak eta komikiak bilduma banatan argitaratuko dira; film laburrekin muntaia orokor bat egingo da, eta antzezlanak euren kabuz aurkeztuko dira herri horietan. Zirkuitu hau egonaldiak jaso dituzten udalerrri guztietatik igaroko da. [12]

Bergarako adineko pertsonen kontseilua sortze bidean



Urtarrilaren 30ean egindako ohiko osoko bilkuran onartu zen adineko pertsonen kontseilua sortzeko erregelamendua eta hori sortzeko urratsak egiten ari dira. Kontseilu hau sortzearekin azken urteetako eskaera bati erantzuten zaio. Hainbat eragilerek (Nagusilan, San Joxepe, Goienagusi eta Duintasuna) batera ondutako proposamena da, eta adineko pertsonen partaidetza, ahalduz eta protagonismoa bultzatzea da, besteak beste, kontseilu honen

helburuetako bat. Ezarritako helburuak lortzeko eragile desberdin eta Udalaren arteko elkarlana eta komunean dauden gaien lanketa egitea da asmoa. Azken hilabeteetako elkarlan horren adibideetako bat da, esate baterako, urriaren 1ean, Pertsona Nagusien Nazioarteko Eguna elkarrekin antolatuta eta ospatu izana. Udal Gobernuaren 'Bergara izan, bizi, ekin' agintaldiko planean jasota dago egitasmoa. [13]

66 ke-detektagailu jarri dira 2022an gizarte premiak antzeman eta suteak ekiditeko programaren bitartez

2022an, iraila eta abenduaren artean garatu da 80 urte baino gehiago izanik bakarrik edo 65 urtetik gorako beste baten batekin bizi diren pertsonen zuzenduta dagoen programa hau.

Programaren helburua, pertsona hauen etxeetan sartu eta euren egoera ezagutzeaz gain, zurgarritasun egoerarik ematen den ezagutzea, gizarte premiarik duten antzeman eta etxeko sute arriskuen azterketa bat egin eta suteak ekiditeko ke detektagailu bat jartzean datza.

Programa etengabe 2014. urtetik burutzen ari da Udala, eta urtero programan sartzen diren erabiltzaile berriez gain, aurretik programan dauden herritarrei jarraipena eta ke-detektagailuen mantenu lana egiten da. 2022 urtean 66 herritar berriri zerbitzua martxan jarri zaie. Bisitatutako 59 etxetan (%89) ez zen arriskurik identifikatu, baina beste 7 etxetan (%11) hainbat arrisku antzeman ziren. Horiek zuzentzeko neurriak adierazi zaizkie.[14]

Euskararen aurkako eraso judiziala salatu du udalbatzak

2023. urte hasieran EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak CCOOen eskariz Barakaldoko Udalaren erabaki bat baliogabetu izana abiapuntu hartuta, eta ildo horretan azken urteotan izan diren gertaerak aintzat hartuta, Bergarako udalbatzak otsailaren 27an egindako ohiko osoko bilkuran euskararen aurkako eraso judiziala salatzen moztu zuen, aho batez. [15]

[12] Bergara vuelve a participar en la iniciativa cultural 'Geuretik sortuak' de Udalbiltza y acogerá al ilustrador Kote Camacho. [13] En vías de crearse el consejo de personas mayores. [14] Se han instalado 66 detectores de humo en el marco del programa para la detección de necesidades sociales y prevención de incendios. [15] El pleno rechaza la ofensiva judicial contra el euskera.



Emakume zientzialariak argitara ekartzeko aletxo jarri dute Aranzadi ikastolako eta Mariaren Lagundia ikastolako ikasleek

Neska eta Emakume Zientzialarien Nazioarteko Eguna otsailaren 11n ospatzen da. 2015ean aldarrikatu zuen Nazio Batuen Batzar Nagusiak, emakumeek zientzian sarbide eta parte-hartze osoa eta bidezkoa izan zezaten, baita genero-berdintasuna eta emakumeen ahalduntzea lortzeko ere.

Zientziaren historiak argi erakusten du emakume askoren aurkikuntzak ezkutuan edo itzalean gelditu direla, askotan gizonen izenean jasota edo besterik gabe, inongo aitortzarik gabe geldituta. Poliki-poliki denon artean itzalpeko emakume horiek argitara ekartzen ari garen arren, lan handia dago egiteke historia osatzeko.

Gaur egun, gainera, genero arrakala dago zientziaren esparruan eta gazteek oso ikuspegi murriztua dute ogibide zientifiko-teknikoen gainean, alor horretako profesionalak gauzatzen dituzten lanei buruz, edo zientziak, teknologiak eta berrikuntzak gizartean duten eraginaren inguruan.

Laboratorium museoak, gizarte museoa den heinean, emakume zientzialarien erreferente historikoei balioa ematen, bokazioak sustatzen eta genero-arrakala ixten lagundu nahi du, eta horretarako, formatu desberdinetako hainbat jarduera antolatu ditu eta aurreikusten jarraitzen du. ZTB jardueren baitan, adibidez, Bergarako Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasle eta irakasleei emakume zientzialarien inguruan lan bat egitea proposatu zitzaizen. Lehiaketa formatuan proposatu zitzaizen erronka, eta Emakume Zientzialarien Nazioarteko Egunaren testuinguruan egin da sari-banaketa, otsailaren 10ean, Laboratorium Museoa.

Emakume zientzialariak argitara ekartzeko egin duten lana aitortu zaie proposatutako lehiaketan parte hartu duten ikasleei.

Bideo saritua Ada Lovelace zientzialariari buruz Aranzadi Ikastolako Irati Aperribaik, Mali Juaristik eta Miren Irizarrek egindakoa izan da. Historiako lehen programatzailea izan zela esan ohi da, programazio-lengoaia eta kontzeptu orokorra erabili zuen lehen emakumea izan zelako (baita lehen pertsona ere), edo makina bat kontrolatzeko lehen algoritmoa sortu zuelako.

Landu dituzten gainontzeko emakume zientzialariak hauek izan dira: Angeles Albariño, Hipatia Alejandria, Inge Lehmann, Lisa Randall, Mary Agnes Chase, Marie Curie eta Mileva Maric. Erabakia hartzea zaila izan da epai-mahaiko kideentzat, lan onak aurkeztu dituztelako guztiek. Epai-mahaian Bergarako Udaleko Laboratorium museoko, Berdintasun saileko, Komunikazio zerbitzuko, Garapen zerbitzuko eta Miguel Altuna Lanbide Heziketako ordezkari bana egon dira.

Genero-arrakala apurtzen joateko guztion lana beharrezkoa dela argi dago, eta ildo horretan lan egiten jarraitu behar dugu.





Selfie eta photocall-ak XIX. mendean

Teknologian oinarritutako mundu honetan, erraz pentsatzen dugu askotan berritzen eta gauzak asmatzen ari garela, eta bai, ari gara, baina, denboran atzera begiratzen badugu, ez ote dugu ikusiko berritasuntzat genuen hori gure aurrekoek ere egiten zutela? Bada, horrelako kasu bat topatu dugu.

Gaur egun *selfie* eta *photocall* hitz modernoak erabiltzen ditugu telefonoekin argazkiak barra barra egiten ditugunean. Ba, gezurra ba dirudi ere, XIX. mendean ere egiten ziren. Oraingoan Valleko kondearen fondora jo dugu eta hori erakusteko bi argazki aukeratu ditugu.

Argazkilaria Ignacio Murua da. Errotalden (Santa Anan) bizi izan zen azkenengo Valleko kondea. 1863an jaio zen eta badakigu 1889an, 26 urterekin, argazkiak ateratzen zituela.

Argazki zaletasun handia zuen eta bere etxean laborategia eduki zuen, eta milaka argazki zeuzkan. Garai hartan zaletasun garestia zen eta ez zegoen edonoren eskura.

Lehenengo argazkian emakume eta gizon talde dotore bat agertzen da. Talde erretratua egin ahal izateko argazki makina tripode batean jarrita egongo da. Dena gertu dagoenean argazkia bota ahal izateko kable luze bat erabiltzen du eta disparadorea sakatu.

Argazkiaren zatian kablea markatu dugu errazago ikusteko. Horra hor emaitza!

Bigarren argazkian XIX. mendeko photocall-a dugu. Bi neska gazte agertzen dira bertan. Baina seguru aski nahi gabe ikusi behar ez dena ere azaltzen da. Eta argazkiak nola egiten zituzten ikasteko balio dugu. Argazkiaren fondoa izara zuri batekin eginda dago. Eta ez hori bakarrik: izara oratzen daudenak ere argazkian agertzen dira!



D2030



Langabezian edo egoera zaugarrian daudenen laneratzea errazteko proiektua martxan da Debagoienez

Langabezian edo egoera zaugarrian dauden pertsonen laneratzea helburu duen proiektua da Debagoiena Lanean. Otsailean abiatu da –Miguel Altunan hasitako formazio batekin– eta Gipuzkoako Foru Aldundia, Debagoieneko Mankomunitatea eta Debagoiena 2030 ekimena dira bultzatzaileak. Sustatzaileez gain, Lanbide Heziketako hezkuntza zentroek, hala nola, Miguela Altuna Lanbide Heziketa Zentroak, Mondragon Goi Eskola Politeknikoak eta Arizmendi Ikastolak– eta gizarte mailan lan egiten duten entitateek – Sartu, Daiteke, LHL Lanbide Heziketaren Lagunak Elkarte eta Kalekka– hartuko dute parte.

Proiektuaren onuradunak bazterkeria arrisku egoeran dauden pertsona eta kolektiboak dira. 45 urtetik gora langabezian dauden pertsonak; lan baimenik ez duten pertsona atzeritarrak; hizkuntzarekin arazoak dituzten pertsona atzeritarrak; genero indarkeriaren biktima edota beste gauza batzuk direla medio arrisku egoeran dauden emakumeak eta diru sarrerak bermatzeko errenta kobratzen duten pertsonak.

Proiektuak bi urteko iraupena izango du eta lehen fasean 150-200 pertsona ingururekin lan egingo da. “Azken inaktua formazioa jasoko duten pertsona horien laneratzea izango da. Guztira, 50 pertsona laneratzea da helburua, baina bidean ere lortuko ditu beste helburu batzuk. Programak irauten duen bitartean, pertsona guztiek laguntza integrala jasoko dute eta laguntza hau tutoretza pertsonalizatuaren bidez emango da”, dio D2030eko Berrikuntza Proiektu arduradun Idoia Illarramendik.

Hautaketa fasearen ondoren, formazioa eskainiko zaie pertsona horiei: sektore berdean, industrian eta ofiziotan egingo dira formazioak.

FORMAZIOA MARTXAN

Horietako bat, soldaduraren gainekoa, otsailean hasi da Bergarako Miguel Altuna Lanbide Heziketan. Horretaz gain, Biltegi Kudeaketaren gaineko beste bat ere eskainiko du aurrerago Miguel Altuna Lanbide Heziketa Zentroak. Uda ostean hasiko da hori. Programaren baitan, Arizmendi Ikastolan Eraikuntzen Mantenua ikastaroa ere eskainiko da eta Mondragon Goi Eskola Politeknikoan bi formazio eskaintza egongo dira. Hiri eta Industria Hondakinen Kudeaketa eta Energia Berriztagarrien Instalazioen Mantenua.

ELKAR-EKIN ESTRATEGIAREN BAITAKO PROIEKTUA

Debagoiena Lanean deritzona, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Elkar-Ekin estrategiaren baitako proiektua da. Debagoiena Lanean-ekin batera, beste lau proiektu garatuko dira Debagoienez estrategia horren baitan eta bazterkeria egoeran dauden pertsonen laneratzea helburu. Pertsonen zaintzarekin lotutako Alkarrekin Eratu izenekoa; sukaldaritzarekin lotutako Zuk-Aldatuz Berri; garbiketa esparruko Lan Arin Garbitasuna eta gazteen laneratze eta gizarteratzearekin lotutako Gazteen ibilbideak izenekoa.

ehbildu

ABANTE, BERGARA

Legegintzaldiko azken aldizkaria izango den honetan atzera begirako bat egitea egokitzen zaigu.

Harro gaude Gorkak eta bere taldeak egindako lanaz. Jakin dute Bergarari kolorea ematen, eta dagokion lekua irabazten ari da gure herria. Herri bizia ari gara eraikitzen: sortzailea, solidarioa eta bizitzeko atsegina. Eta horretarako herritarrek eta eragileak izan ditu alboan, herritarrik gabe ezin delako herria egin. Horrela, udal baliabideak herritarren eskura jarri dira, eta herrigintza bultzatu.

Kultur eskaintza indartu du Udal Gobernuak, haurrentzat jolasparke inklusiboak egin, kirol instalakuntzak berritu, Zubieta eta Masterreka kaleak irisgarri bihurtu, eraldaketa soziala bultzatu Ehunduren bitartez, Arrizuriaga jauregia kulturara eta politika feministetara bideratu, aniztasun funtzionala duten pertsonen aukera berriak eskaini... Proiektu handi eta txikiak, ondo edo okerrago asmatuak, baina beti ere herritarren ongizatea eta bazterrekoak buruan.

Mundua geratu zuen pandemia izan dugu legegintzaldi honetan. Inork ez zekien zer gertatuko zen, eta ziurgabetasun egoera horretan, Udal Gobernuak jakin zuen aurrez zituen asmo eta planak aldatu eta larrialdiari erantzuten. Orduan ere, zaurgarriak izan zituen bere politiken erdigunean.

Larramendiko aferaren inguruan ere, interes ekonomiko jakinen gaintetik, udal ordenamendua defendatzen eta bergararren interesak babesten ondo baino hobeto dakiela erakutsi du gobernua.

Gainera, udalak duela 4 urte baino 1.000.000 euro gutxiagoko zorra dauka orain. Begibistan dago kudeatzaile onak ditugula.

Badakigu konpromiso handia eskatzen duela udalak, eta sarritan ez dela erraza asmatzea. Horregatik eskertzen diogu Gorka Artolari eta bere taldeari legegintzaldi honetan egindako lana eta erakutsi duten ekiteko gaitasuna. Herritarrek nahi badute beste 4 urtez Bergara gidatzeko asmoa adierazi dute Artolak eta Ainhua Letek dagoeneko. Lan ona egin duzue, eta gure babesik zintzoena daukazue.

Gorka Artola y el equipo de gobierno que dirige, han sabido construir un pueblo más vivo, solidario y creativo. Siempre con la ciudadanía y los agentes sociales, porque sin ellos no se puede crear comunidad. Han gestionado una pandemia mundial, poniendo a las personas en situación de vulnerabilidad en el centro de sus políticas, y en cuanto a la planta de Larramendi, han defendido los intereses de la ciudadanía por encima de intereses económicos ajenos. Con sus aciertos y sus errores, han reducido la deuda del ayuntamiento en 1.000.000 de euros. Por ello, agradecemos al equipo de gobierno el trabajo realizado. Tenéis nuestro más sincero apoyo para los próximos cuatro años.



GURE ADINEKOAK ERDIGUNEAN JARRI ETA EUREN BORONDATEA ENTZUN ETA ERRESPETATUKO DUEN ZAINZA EREDUA BULTZATUKO DUGU

Begarako EAJ-PNVko udal taldeak adineko pertsonen bizi-kalitatea hobetzea du helburu. Izan ere, biztanleriaren %35 55 urtetik gorakoa da (2017ko datua) eta % 46,5 izango da 2031n. Gainera, 2060rako bikoiztu egingo da 80 urte baino gehiago dituztenen kopurua eta gizarte osoaren %15 bilakatuko dira. 2020an, % 7 ziren. Eta 35-40 urte barru, 3 herritarretik 1ek, 65 urtetik gora izango ditu.

Datu hauen arabera, mendekotasun maila handitzen doa. Horregatik guztiagatik, lehen mailako erronka baten aurrean gaudela esan genezake; izan ere, zahartzaroari begirako estrategiak lantzeko beharra areagotu da: etorkizuneko bizilekuak, bakardadeari aurre egiteko estrategiak, zaintza komunitarioak... lantzeko ueña iritsi da.

Erakundeen arteko elkarlana: zaintza erdigunean

Aurrean dugun erronkari aurre egiteko ezinbestekoa da erakundeen arteko elkarlana. Horren adibide dugu ADINBERRI – Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatutako proiektua, Gipuzkoako hainbat herrirekin batera - : orainetik adinekoen etorkizuna aldatzeko erantzukizuna du erakundeak. Proiektu honek adinekoen bizi-kalitatea bermatzea du helburu, zahartze aktiboa eta osasungarria sustatuz. Arreta pertsonarengan oinarritzen da eta adinekoen borondatea entzun eta errespetatu. Bergaran ere komunitatean eta komunitatearentzat lan egiteko ueña iritsi da, ongizaterako sareak ehunduz.

Jeltzaleok argi daukagu zahartzearen erronkari ikuspegi desberdinetatik heldu behar zaiola. Adinekoak eta menpekotasuna dutenak artatzeko modua eraldatu behar da eta zaintza erdigunean ipini. Horretarako, elkarlanerako guneak aurkitu eta sustatu behar dira, eta ausardiaz erabakiak hartu. Horretan, hainbatetan erakutsi duen moduan, EH BILDU hankamotz dago. Erakundeen arteko elkarlana bultzatzeko arazoak ditu eta zer esanik ez erabakiak hartzeko dituen zailtasunen inguruan.

Hauteskundeetatik haratago dago zaintza eredu berrien lanketa. Bergaran pasa den urtean ARIN zentroa ireki zen, badirudi EH Bilduren Udal Gobernuak hor amaitu duela bere lana. Baina badago zer egin, lan handia dugu aurretik eta gu behintzat ez gara geldirik egongo.

El nivel de dependencia está creciendo y por ello, debemos poner el cuidado de nuestros mayores en el centro. Crear redes en la comunidad e impulsar la colaboración interinstitucional. EH Bildu ha demostrado que no tiene capacidad para relacionarse con otras instituciones y tampoco para tomar decisiones. Las y los jeltzales trabajaremos para implantar un nuevo modelo de cuidado que escuche y respete la voluntad de nuestros mayores.

GORKA ARTOLA ALBERDI

ALKATEA

Antolakuntza arloko batzordekidea • Lurralde arloko batzordekidea

alkatea@bergara.eus

**ZIHORTZA MARZAN
USANDIZAGA**

ZINEGOTZIA

Gizarte Zerbitzuak

zmarzan@bergara.eus

AINHOA LETE ZABALETA

ALKATEORDEA

Antolakuntza arloko lehendakaria • Berdintasuna • Sustapen Ekonomikoa, Berrikuntza, Ekintzailetasuna eta Turismoa • Udal Kudeaketa

alete@bergara.eus

**EAJ-PNV-KO UDAL
ORDEZKARIAK**

MAITE AGIRRE IRIBAR

Herritarrak arloko batzordekidea
Antolakuntza arloko batzordekidea
Lurralde arloko batzordekidea

magirre@bergara.eus

**AITOR ARANZABAL
GALLASTEGI**

ALKATEORDEA

Antolakuntza arloko batzordekidea • Ogasuna • Herritarrak arloko batzordekidea • Kirola

aaanzabal@bergara.eus

**LANDER ARREGI
INTXAUSTI**

Lurraldea arloko batzordekidea

larregi@bergara.eus

**KRISTINA MARKINA
IGARZA**

ZINEGOTZIA

Herritarrak arloko batzordekidea • Kultura

kmarkina@bergara.eus

**IRUNE GALARRAGA
EZENARRO**

Antolakuntza arloko batzordekidea
Herritarrak arloko batzordekidea
Lurralde arloko batzordekidea

eaj-pnv@bergara.eus

**JUAN LUIS GONZALEZ
LOPEZ**

ALKATEORDEA

Lurraldea arloko lehendakaria • Hirigintza

jlgonzalez@bergara.eus

**ANGEL MURGIÓNDO
MUGIKA**

Antolakuntza arloko batzordekidea

eaj-pnv@bergara.eus

**NAGORE INURRATEGI
IRIZAR**

BOZERAMAILEA

ALKATEORDEA

Lurraldea arloko batzordekidea • Auzoak • Ingurumena

ninurrategi@bergara.eus

**ESTHER ORTIZ DE ZARATE
CARRILLO**

Herritarrak arloko batzordekidea

eaj-pnv@bergara.eus

JOSEBA ELOSUA URKIRI

Lurraldea arloko batzordekidea

eaj-pnv@bergara.eus

**EKAITZ ARANBERRI
ZEZEAGA**

ALKATEORDEA

Herritarrak arloko lehendakaria • Euskara • Gazteria • Komunikazioa • Partaidetza • Hezkuntza

earanberri@bergara.eus

MARTIN ETXANIZ

Antolakuntza arloko batzordekidea

eaj-pnv@bergara.eus

**JUANJO ASULA
TXURRUKA**

ZINEGOTZIA

Lurraldea arloko batzordekidea • Obra eta Zerbitzuak

jasula@bergara.eus

**PSE-EE-KO UDAL
ORDEZKARIA**

**ALBERTO ALONSO
MARTIN**

Antolakuntza arloko batzordekidea
Lurraldea arloko batzordekidea
Herritarrak arloko batzordekidea

psoe-ee@bergara.eus **23**

1923. urtean sortu zen Bergarako Orfeoia, nonbait kanturako tradizioa bazegoen ordurako?

Ez dago sortu zeneko agiririk, baina 1923. urtea hasieratzat hartzeko arrazoiak badaude. Musika arloan aberatsa da Bergara, eta dirudienez hori aspalditik dator. Gaur egun ezagutzen dugun Bergarako Orfeoia sortu aurretik ere, bazegoen besterik. 75. urteurrenaren testuinguruan azertu zen historiaren bilaketa. Orduan argitaratutako aldizkarian jasotzen da 'Aritz-maitea' orfeoia egon zela 1897an, ondoren, 1918 inguruan berrantolaketa bat izan zuena, Bergarako kantugintzaren gainbeherari aurre egin nahian. Hor koka daiteke hasiera, baina beste arrazoi batzuk tarteko, 1923a hartu izan da sorrera urte gisa.

Nola ospatuko duzue urteurrena?

Kantuan, noski. Maiatzaren 20an San Pedro elizan kontzertu sinfonikoa egingo dugu. Oso lotuta egon da beti San Pedro kontzertuekin. Askotan egin dugun bezala, Mozarten Requiem-a ere kantatuko dugu. 200 pertsonatik gora parte hartuko dute. Orfeoiko kide ohiekin Ave Verum abestu nahi dugu eta horiek animatu nahi ditugu. Erakusketa bat ere egingo dugu, ekainean Aroztegi aretoan ikusgai egongo dena. Azaroan herriko talde eta abeslariekin kontzertu herrikoa egingo dugu. Urteurrenaren bueltan kanta bat ere sortu du David Azurzak, hori aurkezteko data ez daukagu oraindik.

Irudi korporatiboa berritu duzue urteurrenean, baina irudiaz harago, aurretik landuta duzue taldea berritzen joateko harrobia Orfeoi Gaztearekin, ezta?

Esan bezala, aberatsa da Bergarako musika sorkuntza, eta orfeoiaren arloan ere badabiltza gazteak. Aurrera begira esperantza ematen du horrek.

Zenbat pertsonak osatzen duzue taldea gaur egun?

Orfeoia 38 pertsonak osatzen dute, 24 emakumezko eta 14 gizonezko. Azkenaldian 5 emakumezko eta 2 gizonezko berri sartu dira.

Ze gonbidapen egingo zenieke bergararrei?

Urtero urteko balantzearekin gutun bat bidaltzen dugu eta beti gonbidatzen dugu jendea kantura batzeko. Orain ere mezu hori zabaldu nahiko nuke. Parte hartzera eta batzeko kantura. Ez izan zalantzarik eta animatu zaitezte gurekin kantura!



Kontxi Laskurain Mujika
Bergara, 1961

Begarako Orfeoiko
lehendakaria

“Urteurrena kantuaren bueltan gurekin batera ospatzera gonbidatu nahi ditugu bergararrak”

Urteurren biribila du Bergarako Orfeoia 2023an, 100 urte beteko baititu. Bere izanari jarraituta musikarekin ospatuko du urteurrena, baina baita bestelakoekin ere. Guztiak ere herritarrekin batera, hala kontatu digu Orfeoiko lehendakari Kontxi Laskurain Mujikak.